



ASTIGARRAGA

Santilagomendiko Natur Eskola eta Aterpetxea



Astigarragako Udala



Foru Enparantza, 13
20115 ASTIGARRAGA

☎ 943 335 064 (aterpetxea)

☎ 615 789 584 (natur eskola)

☎ 943 556 727

Faxa: 943 335 073

ingurugiro@astigarraga.net

kultura@astigarraga.net



2006an berrituta dagoen ekipamendu hau natur eskola eta aterpetxe modura erabiltzeko prestatuta dago.

Ikasturteko ategunetan LH zein DBHko ikasleei zuzenduta dago eta egonaldi horietan ikasle eta irakasleek, bertako hezitzaileen zuzendaritzapean hainbat tailer eta ikastaro egiteko aukera dute, egun bat, bi edo hiruko egonaldietan.

Aterpetxe gisa, bereziki, asteburuetan eta oporraldietan erabil liteke. Oso ekipamendu egokia da kirol bilkurak, barne-tegiak, ikastaroak, jardunaldiak eta abar egiteko, baina edozein jardueretarako aloka liteke, baita lagun-taldeek ere.

Helburuak

- Herritar, ikasle zein irakasleengan Tokiko Agenda 21eko irizpideen oinarri diren jarrera partehartzaile kritikoak eta errespetudunak bultzatzea.
- Ingurunea osatzen duten elementu desberdinen arteko erlazioak ezagutzera eman.
- Errealitatea hobeki ulertzeko baliabide desberdinak eskaini.
- Gizartearen parte hartzeko ereduak ezagutarazi eta bultzatu.

Jarduerak

- **Ibilbide gidatuak:** Astigarragako garapena ikusteko aukera ematen dutenak "baserri girotik egungo Astigarragara".
- **Astigarraga Historiaurretik Aro Modernora:** garai bakoitzeko aztarnak aztertuko ditugu.
- **Sagardoetxea eta sagasti didaktikoa:** baliabide berr honekin sagardogintzan murgiltzeko aukera ezin hobea izango dute.
- **Tallerrak:** jorratzen ditugun gai desberdinekin lotura dutenak: sagardultzea, ontz-gintza, kontsumoa, paper birziklatua, sendagaiak, Santilagomendiko maketa, historiaurreko tresnak.

hik hasi 48

gida



...natura maitatzeko...

...55 euro...

...943 670 637...

...943 670 249...

Duskaraz hitz egiteko...

guztaz natura...

Urbasa...

Espeleologia...

hik hasi